

Mendi magalean ♦

♦ b i d a i d e , g o g a i d e ♦

Santa Marina (Urbasako mendikatea)

Erdi Aroko ermita hau bisitatuz batera, Nafarroako mendigune ederrenetako batean ibilbide polit batez goatzeko aukera izango dugu

XVIII. MENDEKO hirugarren laurdean hargintza eta zurgintza lanak egin ziren ermitan. Azken horietan Ildefonso Fuster eskultoreak esku hartu zuen; Zaragozako bazen ere, garai hartan Bakaikun bizi zen. Santa Marinako ermita Erdi Arokoa da, baina ezagutzen den idatzizko lehen erreferentzia Burundako 1563ko Ordenantzetan bilduta dago: abereen bazkalekuez aritzean, ermita aipatzen da.

Ermita herritik urrun jarri zuten, Barga edo Urbasako mendikateko ipar-gailurretako goialdean; antzina mendietako goialdea aukeratzen zuten, eguzkia, ilargia... gurtzeko.

Urdaian udalerria Sakanako ibarraren erdian dago, Urbasa mendikateko ipar-gailurren azpian. Iruñetik 47 kilometrora dago, eta Sakanako autobide bukatu berriarekin lotuta.

0:00 (550 m.) Udaletxea • Gaurko ibilaldia herriko udaletxearen aurrean dagoen aparkaleku txikian hasiko dugu. Hegoaldeko norabidean herritik urruntzen hasiko gara.


Herriko azken etxeen parean, zertxobait ezkerrean egiten duen bide bat hartuko dugu, hego-ekialde norabidean. Handik lau minutura bidegurutze bat dago. Ezkerreko bidetik jarraituko dugu hego-ekialde norabidean. Berriz ere beste bidegurutze batera iritsiko gara (8'); oraingoan aurrera segiko dugu, norabide berean.

Burdinazko portalanga batera iritsiko gara (11'). Igaro ondoren aurrera jarraituko dugu; lehendabizi bidegurutze batera iritsiko gara (15'), eta ondoren beste batera (17'). Bi kasuetan zuzen aurrera jarraituko dugu; bidea pixkanaka-pixkanaka igotzen da.

0:28 (775 m.) Bihurgune handia • Hortik ezin hobeto ikusten dira mendikateko gailur zorrotzak. Hegoaldeko norabidean jarraituko dugu. Handik bi minutura ezkerreko bidea hartuko dugu, oraingo honetan ekialdeko norabidean. Inguru honetan zuhaitz ugari dago (pagoak); zuhaitzok gazteak dira, eta kandela bat baino zutago hazten dira. Bidea, leku horretan, pixka bat leuntzen da.

0:50 (940 m.) Portalanga • Burdinazko portalanga bat gurutzatuko dugu (ohe bateko somierra), aska baten ondotik igaroko gara (ezk.), eta alanbrezko itxitura bat gurutzatuko dugu propio prestatutako egurrezko pasadizo batetik. Une batez mendebaldeko norabidean jarraituko dugu bidetik, baina gero hegoalderantz segituko dugu.

1:02 (1.020 m.) Arramaila • Hau da Urdiaingo mendate zaharra. Inguruan hainbat uso-parada daude (harriz egindako parapeto gisa).



MIKEL NAZABAL

Urbasako
ibilbide
zoragarri
honetan
paisajeaz eta
Erdi Aroko
monumentuez
goatzeko
parada izango
dugu.

Alanbrezko itxitura gurutzatuko dugu burdinazko portalanga batetik - Urbasako mendikaterako bidearen hasiera da-, eta itxituran zehar jarraituko dugu gailurretatik ekialdeko norabidean.

1:14' (1.065 m.) Santa Marina • Trinitate egunean leku horretan egiten dute erromeria tradizionala Iturmendi eta Bakaikuko herriek. Txandaka antolatzen dute bi urtean behin.

1595ean, Juan Huarte lizentziatuak honako hau idatzi zuen: «Izan ere, leku honetako (Iturmendiko) barrutian Santa Marina izeneko ermita dago, zeina Burunda ibar osokoa baita, eta hara urtean zehar prozesioan joaten dira askotan, eta meza asko egiten dira, baina ez dago behar bezain garbi, irekita eta gaizki erabilia baizik, eta horregatik, kasurik egiten ez zaionez, animaliak sartzen dira. Horregatik, ermita dagoen mendikateetik dabilzan artzainei, hala nola beste edozeini, nolanahikoa izanik ere, eskumikuaren azpian agintzen diet animailiak sartzen ez uzteko.

Orobat, agindu hau Santa Marina egunean argitara dadila ofertorioare-

kin batera, eta Iturmendiko abadeak eta ibarreko gainontzekoek, ermitaz arduratzen diren beste pertsonekin, itxita gorde dezatela, eta beharrezko ateak eta sarraillak egin ditzatela».

Ermitaren ondoren bi txabola dau-de. Gaur egun, haietako bat aterbe gisa prestatuta dago, eta urte osoan egoten da irekita.

Multzo osoa mendikateko gune garai batean kokatuta dago, eta egun argietan paisajea zoragarria da: besteak beste, Sakanako korridore luzearen zati bat ikus dezakegu, hartako soro eta herri guztiekin; baita Aralarko mendikatea eta San Donato ere.

Leku herbatsu batetik jaitsiko gara ekialdeko norabidean. Hiru minutu geroago alanbrezko itxitura batera iritsiko gara. Hor zutuin bat aurkituko dugu, hain zuzen ere GR bat adierazten dutenetatik lehendabizikoa. Iturmendiko Udalak ibilbide laburreko bidezka balizatu bat egin du; marra zurri-horiak dira haren ezaugarriak.

Seinaleei jarraituz, 300 metrora, Santa Marinako trikuharria ikusi ahal izango dugu. Alanbrezko itxitura gurutzatuko dugu, eta ipar-ekialde

norabidean jaisten hasiko gara ondo markatutako bide batetik, kasu honetan marka zurri-horiei jarraituz.

1:23 (970 m.) Santa Marinako iturria • Bidea poliki-poliki jaisten da pago handien arteko bide batetik.

Berriz ere, ezkerrean, Angiturrutako iturria (1:35). Jaisten jarraituko dugu burdinazko portalanga batera iritsi arte; hori gurutzatu ondoren, jaisten jarraituko dugu, oraingo honetan pista batetik; Iturmendi herria hurbil da.

Bidegurutzea (1:44): ezkerreko pistatik jarraituko dugu; lehendabizi, San Pedro ermitara hurbilduko gaitu, eta, ondoren, Iturmendira.

1:56 (515 m.) Iturmendi • Herri erditik jaitsiko gara, eta errepidea gurutzatu baino lehen ezkerrean joko dugu; hala, bide lasai batetik ibiliko gara mendebaldean. Bideak baratzte artean egiten du aurrera, eta Urdiaingo herrira eramango gaitu.

2:15 (550 m.) Udaletxea • Herrira tragoxka bat eta atseden pixka bat hartzeko gogoz iritsiko gara.

..... Mikel Nazabal